

Borondatezko erretiro aurreratua
Habilitazioak luzatzea
Irale 1go deialdia

Borondatezko erretiro aurreratua

Eskaera otsailaren 28a baino lehen egin behar da delegaritzetan

HLOren (LOE) 2. xedapen iragankorrak dionari jarraituz (momentuz 2011ko abuztuaren 31ra arte bakarrik indarrean) Hezkuntzako Irakasle Funtzionarioek borondatezko erretiroa eskatzeko aukera dute, beti ere baldintzak bete eta eskaera otsailaren 28a baino lehen egiten badute.

Nork eska dezake?

Eskaera egiten den urteko abuztuaren 31ko eraginekin, **Klase Pasiboen Erregimenera (MUFACEra) atxikitako irakasle funtzionarioek** (1993 baino lehen EAEko funtzionarioek eta lekualdatze leihaketa bidez beste autonomia erkidegoetatik etorritakoek) eta **Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreara atxikitako irakasle funtzionarioek** (azken multzo honetakoek, erretiro eskaera egitearekin batera, Klase Pasiboen Erregimenera pasatzea eskatu behar dute, erretiro bide honen eraginetarako soilik).

Bete beharreko baldintzak:

- a) Eskaera aurkeztu aurreko 15 urteak jarduneko zerbitzuan etenik gabe egon izana edo, bestela, lanpostua gordetzea dakarren administrazio-egoeran
- b) 60 urte beteak izatea abuztuaren 31n.

GARRANTZITSUA:

60 urte betetzen diren urteko, edo aipatu adina jadanik beteta bada erretiroa hartu nahi den urteko urtarrian edo otsailean aurkeztu behar da eskaera ezinbestez.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa (dagokion Lurralde Ordezkaritzan):

- Eskaera inprimakia (Gizarte Segurantzara atxikitakoen kasuan, baita Klase Pasiboetara pasatzeko inprimakia ere)
- NANA eta Bizitza Laborala
- Jaiotza-ziurtagiria (Interneten bidez jutzitia.net-en, edo jaiotza herriko Bake Epaitegian)

Eragin ekonomikoak:

Erretiro pentsioa: Pentsioa kalkulatzeko diru kopuru bat hartzen da oinarri "HABER REGULADOR" deiturikoa (urtero Estatuak erabakitzen du: 2011 urterako 39.268,77€ Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat, eta 30.905,51€ Maisu-Maistrentzat eta LH-ko Irakasle Teknikoentzat). Pentsioaren kalkulurako, zerbitzu urteei dagokienez, egindakotzat jotzen dira 65 bete arte falta diren urteak. "Haber Regulador" earen %100era iristeko 35 urte kotizatuak behar dira edozein erregimenetan. 2011. urterako ezarritako gehienezko pentsioa, 34.970,74€ dira.

Erretiro saria: Erretiro era honen bidez ematen den saria eskuratzeko, abuztuaren 31n – erretiroa gauzatzen den egunean, alegia– gutxienez 28 zerbitzu urte beteta izan behar dira hirurtekoetan aitortuak. Sariak ondorengoak dira erretiroa hartzen den adinaren arabera.

	Adina	60	61	62	63	64
LOE (aukeran)	Saria a)	19 hil. soldata	15 hil. soldata	11 hil. soldata	7 hil. soldata	4 hil. soldata
	Saria b)	65 urtera arte lanean egongez gero jasoko zatekeen soldataren %99ra arte				
MUFACE	Saria	19 hil. soldata	15 hil. soldata	11 hil. soldata	7 hil. soldata	4 hil. soldata

Gogoratu Mahai Orokorreko hitzarmenean 21 hilabeteko soldata saria jasotzen dela eta CC.OO eta UGT-ek gutxiengoan sinaturiko 2010-12 hitzarmenak erretiro-sari hau 19 hilabetera jaisten duela.

Habilitazioak luzatzea

Maisu/Maistren habilitazioak eskatzeko epea hiru hilabetetan luzatzen da

Abendu bukaeran Informatzen 10ean adierazten genizuen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Lekualdatze Lehiaketak arautzen dituen Errege Dekretuari jarraiki (RD 11364/2010) bertan behera uzten zituen 2010eko urriaren 31az geroztik orain arte Maisu/Maistren kidegoan espezialitateak lortzeko baliozkoa zen habilitazioen bidea.

Hau honela izanik ere, ELAk horrela exijituta, laster argitaratuko den Maisu/Maistren espezialitateak ezartzen dituen Errege Dekretu zirriborroaren 3. xedapen iragankorrean, hiru hilabetetako epea ematen da momentu honetan abian dauden ikastaroek eskainitako habilitazioak eskatzeko eta beraz hurrengo lekualdatze lehiaketetan kontutan hartuak izan daitezzen.

Irale 1go deialdia

2011-12ko IRALErako 1go deialdiaren epea otsailaren 14tik 25era

Eskaera epea: otsailaren 14tik 25era izango da biak barne.

Ikastaroak: U, 3000, 4000, 5000, R300, R400, R500, R600 eta R700

Informazio gehiago: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/eu/contenidos/informacion/dih2/eu_2089/irale_2011_2012_1.html

Web orria eta posta elektronikoko helbidea

Afiliatu guztiek ELAren ahalik eta informazio gehien izan dezazuen, laster Gizalan Zerbitzu Publikoetako Federazioaren eta honen barruan Irakaskuntzako web orria ere abian jarriko dugula jakin arazi nahi dizuegu.

Honekin batera, informazio bide hauek hobetzen joan asmoz, zuetariko askoren posta elektronikoko helbidea ez dugunez, gurekin harremanetan jarri eta zuen helbide elektronikoa ematea eskertuko genizueke.